



AKTA

Aiarako Kuadrillaren **TOKIKO GOBERNU BATZORDEAK** egindako ohiko bilkurarena,

2020ko urtarrilaren 15ekoa

Arespalditzako Aiarako Kuadrillaren egoitzan, **13:13ak direnean**, jarraian zerrendatzen diren batzordekideak elkartu dira **ohiko bilkura egiteko, lehen deialdian**. Aiarako Kuadrillako Tokiko Gobernu Batzordeko presidente **Encina Castresana Astarloa andrea** izan da bilkuraren burua, eta M^a Virginia Carcelén García andrea, behean izenpetzen duena, aritu da idazkari-lanetan.

Jarraian aipatutako jaun-andre batzordekideak bertaratu dira:

Encina CASTRESANA ASTARLOA and. (EAJ-PNV)
Gentza ALAMILLO UDAETA jn. (EAJ-PNV)
Josune IRABIEN MARIGORTA and. (EAJ-PNV)
Ander AÑIBARRO MAESTRE jn. (EAJ-PNV)
Joseba VIVANCO RETES jn. (EH BILDU)

Ez da bertaratu eta ez etortzea justifikatu du honako jaun/andre batzordekide honek:

Jon ESCUZA DEL CAMPO jn. (EAJ-PNV)

Vivanco Retes jauna bilkuran sartu da 13:24an, eguneko gai-zerrendako 5. puntua amaitu denean.

Ez dira bilkurara bertaratu Talde Politiko Batzarkideetako bozeramaileak bozeramaileak, gonbidatuak izan arren.

Gainera, Kuadrillako teknikari gisa honako hauek bertaratu dira, bakoitzaren arloetako puntuak azaltzeko: Gianfranco Ghiro eta Leire Dueñas.

Kuadrillako presidente andreak, **lehenengo deialdian, 13:13an**, osoko ohiko bilkura irekita dagoela adierazi du, idazkariak bilera abiarazi ahal izateko quoruma badagoela egiaztatu ondoren, Kuadrillak arautzen dituen Foru Arauaren (azaroaren 20ko 63/1989 Foru Araua) 25. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, besteak beste abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldarazitako Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/1985 Legea) 46.2.c) artikuluari lotuta.



1.- IRAKURTZEA ETA ONESTEA, BIDEZKOA BADA, AZKENEKO BILKURAREN AKTAREN ZIRRIBORROA.

Deialdiarekin batera, egindako azken bilkuraren aktaren zirriborroa erantsi da, hori aztertzeko, eta ez dagoenez inongo alegaziorik, **ERABAKI DA**, aho batez, 2019-12-11ko bilkuraren akta onestea.

2.- HIRIGINTZA ARLOKO AHOAKULARITZA ZERBITZUA:

2.1.- PLANTEATUTAKO DEMANDETAN EMANDAKO EPAIAK AZTERTZEA.

Jakinarazi da hirigintza arloko aholkularitza zerbitzua ematen duten hiru udal txikietako teknikari guztiek demandak jarri dituztela eta horietan beren lan-harremana onartzeko eskatzen dutela:

- Martínez Aguillo andrea eta Pinedo Ortega jauna, arkitektoak biak.
- París Palacios jauna eta Manjón Borregón jauna, aparejadoreak.

Aurrekoari eutsiz, lau demandei dagozkien epaiak eman dira eta lan-harremanaren egoera kontuan hartzen dute, teknikari bakoitzaren kasuan honako zehaztasun hauekin:

ARKITEKTOAK:

- Sara Martínez Aguilok Artziniega eta Okondoko Udalei zerbitzua ematen die eta epaiak honako hau dio:
 - A1 taldea eta UDALHITZEN 24 ordainsari-maila.
 - % 53,21eko lanaldia eta urtean 29.329 euroko soldata, hiru urtekoak barne.
- David Pinedo Ortegak Aiarako Udalean zerbitzua ematen du eta epaiak honako hau dio:
 - A1 taldea. UDALHITZEN 24 ordainsari maila.
 - % 66ko lanaldia eta urtean 34.644,06 euroko soldata, hiru urtekoak barne.

ARKITEKTO TEKNIKOAK:

- Raúl París Palaciosen Artziniega eta Okondoko Udalei zerbitzua ematen die eta epaiak honako hau dio:
 - A2 taldea eta UDALHITZEN 22 ordainsari-maila.
 - % 47,32ko lanaldia eta urtean 22.496,36 euroko soldata, hiru urtekoak barne.
- Iban Manjón Borregón:
 - A1 taldea eta UDALHITZEN 24 ordainsari maila.
 - % 48,7ko lanaldia eta urtean 25.563,117 euroko soldata, hiru urtekoak barne.



Dagoeneko Martínez Aguillo andrearen eta París Palacio jaunaren kontratazioak legeztatu dira eta falta da epai berrienen bi kontratazioak erregularizatzea.

Alamillo Udaeta jaunak adierazi du Manjón jaunaren epaian zerbitzua ematen egon den azkeneko bi urteak hartu direla soilik kontuan. Nolanahi ere, horietan, bere egoera pertsonala dela eta, denbora gutxiago eman du, beraz, ohikoa den prestaziora iristeko zerbitzuaren prestazioa erregularizatzea nahi du. Horrenbestez, epaian adierazitako prestazioa astean 3 egunera handitu beharko da, Aiarako Udalak behar duen zerbitzua behar bezala estaltzeko.

Eztabaida amaitutakoan, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Aiarako Udaleko alkatearen eskaeragatik, onartzea epai judizialak ezarritako lanaldiaren ehunekoa (% 48,7) osatzea, eta, horrela, orain arte ematen zen moduan ematea, hau da, astean hiru eguneko arduraldiarekin.

BIGARRENA.- TEFFFaren finantzaketa maximizatzeko, Iban Manjón Borregón jaunarekin hitzarmen bat egitea, A2 taldeko teknikari gisa kontratatu ahal izateko, epaian emandako maila eta ordainsari berdinekin.

2.2.- ZERBITZU HONETAN TEFFFaren FINANTZAKETA AZTERTZEA.

Jakinarazi da TEFFFak arkitekto teknikoei eta arkitektoei zuzendutako bi zenbateko zehatz finantzatzen dituela. Baina, ziurrenik handitu daitekeen arren, TEFFFak urtero egiten duen moduan (urtero TEFFFak finantzatzen duen zenbatekoa pixka bat igotzen du), zenbateko horrek ez lituzke zerbitzu berri honen kostuak estaliko. Beraz, udalek arlo honetan beste urte batzuetan baino gehiago inbertitu beharko dute; jarri beharko duten zenbatekoa TEFFF 2020ko lehenengo jakinarazpena jasotzean jakingo dugu. Jakinarazpen hori urtarrileko bigarren hamabostaldian iritsi ohi zaigu.

Eztabaida amaitutakoan, jakinaren ganean geratu dira guztiak.

3.- AIARAKO KUADRILLAKO ZERBITZU ETA BALIABIDEEI BURUZKO GIDA.

3 enpresa gonbidatuta daude eta honako hauek dira:

- ADI GRAFIC
- CRYN CREATIVOS
- DISEÑO MANU CAMPOS DMC



Manu Campos DMC enpresak soilik aurkeztu du eskaintza, beste bi enpresek ez dute eskaintzarik aurkeztu eta ez dute beren partaidetza desenkusatu.

Horretan oinarrituta, DMC enpresak aurkeztutako eskaintzak honako hau hartzen du:

- "0" kostua Kuadrillaren webgunean gida jartze aldera, 18.000 ale eta PDFa gauzatu, diseinatu eta banatzeko. Horrez gain, PDFan 2022. urterako gida eguneratuko da 2021ko abenduaren 31ra arte izandako aldaketekin, gida eguneratua Kuadrillako webgunean jartzeko. Hau da, pleguetan exijitutako 15.750 ale horiek baino gehiago eskaintzen ditu.
- Gainera, gidan azaltzen diren baliabide eta zerbitzuen artean doan banatzea eskaini dute.
- Paper ekologikoa erabiliko dute.
- Gidan sartuko diren QR kodeak sortuko dituzte.

Azaldutakoa oinarritzat hartuta, Kontratazio Mahaiak proposatu du 2020ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran lana MDC enpresari esleitzea.

Eztabaida amaitutakoan, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Esleitzea **DISEÑO MANU CAMPOS DMC** enpresari, "0" euroko kostuarengatik, "2020-23rako Aiarako Kuadrillaren Baliabide eta Zerbitzuei buruzko Gida" egiteko lana.

BIGARRENA.- Esleipendunari jakinaraztea eta esleipena formalizatzea.

4.- 2019 eta 2020ko GIZARTE-ONGIZATERAKO ZERBITZUAREN FINANTZAKETA AZALTZEA.

Presidente andreak azaldu du AFArekin beharrezko kudeaketak egin behar izan dituela zerbitzua finantzatu ahal izateko. Azaldu du 2017an azterketa bat egin zela Arabako landa-eremuan Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek zuten lan-kargari buruz. Egoera aztertu ondoren, AFAn Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek ikusi zuten langile gehiago behar zituztela 20.000 biztanle baino gutxiago dituzten herri zehatzetan. Hala, Aiarako Kuadrillan 1,5 gizarte-langile eta 0,5 administrari-laguntzaile behar ziren.

Horretan oinarrituta, 2018. urtearen amaieran hitzarmen bat sinatu zen. Horren arabera, Kuadrillara bi lanaldi erdirekin atxikitako langile bakoitzaren eta Aiarako Udaleko gizarte-langilearen kostuaren % 80 diruz laguntzen da. Gainerakoa, zehazki 34.727,60 euro, zerbitzua jasotzen duten udalek ordaindu behar dute.

2019. urtean zehar, hitzarmenari dagozkion gastuen hiruhilekoetako justifikazioak AFari bidali dizkio Kuadrillak. Hori dela eta, Kuadrillako Presidentetzak hautatu zirenean, gaia berriz aztertzen hasi ziren. Kudeaketa horien ondorioa da 2020ko hitzarmena. 2021. urtean zehar hitzarmenean honako hauek mantentzeko lan egingo da: zerbitzuak behar direla



bermatzeko aurretiazko azterketa bat egin dagoela, eskualderako beharrezko zerbitzuak direla, oso ongi funtzionatzen dutela eta mankomunitatearen barruan sartuta daudenez, landa-eremuak kalitatezko zerbitzu bat duela, noski, udalen babesarekin.

Era berean, azaldu du 2019ko aurrekontuetan gizarte partidak handitu direla 212,4 milioi euroan (% 4,1) eta 166,4 milioi gizarte-zerbitzuetarako direla. Hala ere, ez dira onartu 2019ko aurrekontuak eta luzatutako aurrekontua aplikatu da, beraz, partida horien hazkundera galdu da eta ez dira hitzarmenak luzatu. Dena den, azaldu digute 2020ko aurrekontuan hitzarmen horien finantzaketa-partidak bikoiztuko direla, 2019ko urteko egoera arintzeko.

Ghiro teknikari jaunak, hitzarmen berriari dagokionez, zerbitzuaren finantzaketa taula aurkeztu du eta udalek egin behar duten ekarpena ezarri du.

Eztabaida amaitutakoan, jakinaren gainean geratu dira guztiak.

13:24an Vivanco Retes jauna sartu da bilkuran eta puntua amaitu berri denez, Presidentetzak gaia Vivanco jaunari azaldu dio.

Vivanco jaunak Artziniegako Udalaren finantzaketa nolakoa izango den galdetu du.

Ghiro teknikari jaunak laburki azaldu du 8.000 € galduko liratekeela 2019ko finantzaketatik administrari laguntzailearen lanposturako eta gizarte-langilea % 100 finantzatuko litzatekeela. Ondoren, azaldu du 2019ko aurrekontua likidatu ahal izateko, udalei eskaerak nola egingo dizkien.

Eztabaida luzatu egin da eta, amaitutakoan, jakinaren gainean geratu dira guztiak.

Momentu honetan, **ERABAKI DA**, aho batez **bilkuraren eguneko gai-zerrenda** aldatzea, deialdiaren 6. puntua 5. puntu izateko.

5.- FITURera BISITA TEKNIKOA.

Ghiro jaunak, arloko teknikariak, jakinarazi du datorren asteazkenean, hilaren 22an, FITURera bisita tekniko bat egingo dela. Hasieran bidaia 3-4 lagunentzako zen, baina 10-11 lagunentzako antolatzeke eskatu da. Gonbidapenak dagoeneko kudeatu dira eta eskuragarri daude. Hotelari dagokionez, beste 3 logela bikoitz lortu dira eta bakoitzak autoz edo minibusez joango den zehaztu beharko du.

Bertaratutakoak feriara joateko edo ez joateko aukera eztabaidatu da, bakoitzaren agendaren arabera eta beren erakundearen ordezkariaren berri eman dute. Ikusi da, nahiz eta batzuek oraindik joango diren ez ziurtatu, erakunde-ordezkaritza 8 eta 11 pertsona bitartean alda daitekeela, eta horrek garraioan zein hotelaren erreserban du eragina. Ildo horri jarraiki, garraioaren inguruko eztabaida egin da eta pertsona-kopurua kontuan hartuta, mikrobus batean joatea komenigarria izango litzateke. Xede horrez, teknikariak autobusaren kostuaren 3



aurrekontu eskatu ditu eta merkeena Autocares Sobrón enpresak aurkeztutakoa da, 1.254 eurokoa, BEZa barne.

Bisita teknikora joan daitezkeenak ikusita, **ADOSTU DA**, aho batez, honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- AUTOCARES SOBRÓN enpresa kontratatzea, **1.254 euroko zenbatekoagatik, BEZa barne**, FITURera egingo den bisita teknikora joateko beharrezko garraiorako.

6.- HHSen BILKETA ZERBITZUA:

6.1.- CESPak AURKEZTUTAKO TXOSTENARI BURUZKO TXOSTEN TEKNIKO-JURIDIKOA.

Bilkura berean Umerez abokatu jaunaren txostena eman da, hori aztertzeko. Nolanahi ere, bilkura egin baino bi ordu lehenago iritsi da.

Dueñas andreak, arloko teknikariak, jakinarazi du txosten osoa irakurtzea ezinezkoa suertatu zaiola denbora gutxi izan duelako, baina txostenean irakurritakoa oinarritzat hartuta, laburki honako hau ondoriozta daitekeela:

- Eman ez diren zerbitzuengatik faktura deskontatuko da. Jakin nahi da ontzi arinak biltzeko gai zehatza aipatzen den; ez bada aipatzen, kontsulta zehatz hori egin beharko litzaioke.
- Zehapenak jar daitezke, baina ez du zehaztu zeintzuk diren arau-hausteak eta jar daitezkeen zehapenak, ez delako txostenaren zati hori entregatu; dena den, gutxi barru bidaliko du.

Horrez gain, jakinarazi du urtarrilaren 21ean CESPAn enpresaren legezko ordezkariarekin bilera bat egingo dela eta Umerez jauna ere bertaratuko dela.

Aurkezpena amaitzean, jakinaren gainean geratu dira guztiak eta txostena jasotzean guztiei bidaliko zaie.

6.2.- PAPEREA ETA KARTOIA BILTZEKO ARABAKO FORU ALDUNDIAK EMANDAKO ZERBITZUAN URRITASUNAK.

Bilkuraren deialdiarekin batera, deialdiaren **II eta III. ERANSKINETAN** eskuratzen den informazioari buruzko txosten teknikoak igorri dira.

Dueñas andreak jakinarazi du zerbitzu hau ematean dauden urritasun nagusiak zeintzuk diren. Ildo horri eutsiz, azken Gabonetan gertatutako intzidentziak bereziki azpimarragarriak dira. Horrez gain, jakinarazi du harremanetan jarri dela foru teknikariarekin



kexak helarazteko eta dagokion informazioa eskatzeko. Adierazi du Aldundiak barkamena eskatu duela zerbitzua urritasunekin emateagatik eta jakinarazi du zehapen-espedita bat ireki diola zerbitzuaren enpresa esleipendunari.

Ondoren, zerbitzuan egondako intzidentzien inguruko eztabaida dago.

Eztabaida amaitutakoan, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Presidentetzak kexen idatzi bat helaraztea Foru Aldundiari, zerbitzua urritasunekin emateagatik. Helburua zerbitzuaren inguruko intzidentziak adieraztea da.

6.3.- HONDAKINEN BILKETA-ZERBITZUAREN KOSTUAK BANATZEKO IRIZPIDEAK.

Teknikariak jakinarazi du aurreko bilkurara ez zirela bertaratu Laudio eta Artziniegako alkate jaunak, eta gaia organo honen beste bilera batzuetan landu arren, puntu hau berriz sartu dela. Hala, dagokion aplikazioarekin zerbitzu honek sortuko dituen kostu berri guztiak azalduko dira, udal-ekarpenetan garrantzi handia baitute.

Teknikariak uste du irizpideak jarraitu behar direla, ezarritako irizpideen eta horien ehunekoen aplikazioa behar bezala zehazteko. Xedea horien aplikazioa hobetu eta ondo doitzea da.

Siloratzeko plastikoen bilketa zerbitzu honi atxikitze aukera eztabaidatu da eta jakinarazi da Amurrio eta Aiarako Udalak orain zerbitzu hau lizitatzen ari direla.

Alamillo jaunak adierazi du beharrezkoa dela zerbitzua aztertzen joatea, esleipenak amaitzen direnean zerbitzua Kuadrillak eman behar duen definitzeko.

Arloko teknikariak irizpideak azaldu ditu eta honako hauek dira:

AIARAKO KUADRILLA
ARABA



CUADRILLA DE AYALA
ALAVA

		AMURRIO	ARTZINIEGA	AIARA	OKONDO	LAUDIO	LAUDIO (pneumatikoa)	Irizpidea
CANON CESP A	Hiri hondakinen ohiko bilketa							
	HHSen bilketa	x	x	x	x	x		Sorkuntza (pisatzea)
	Ontzien bilketa	x	x	x	x	x		Sorkuntza (pisatzea)
	Organikoen bilketa	x	x	x	x		x	Sorkuntza (pisatzea)
	Mantentze-lan orokorrak.	% 35,10	% 6,45	% 12,42	% 4,20	% 41,83		Sorkuntzen historikoa (CESPA)
	<i>Merkataritzako PetaKaren bilketa (AA)</i>	<i>% 18 (30)</i>	<i>% 1 (2)</i>	<i>% 1 (1)</i>	<i>% 1 (2)</i>	<i>% 80 (136)</i>		<i>denda % (pleguaren arabera), 2020 erreala = 171</i>
	<i>Arrangien bilketa</i>	<i>% 35 (5)</i>				<i>% 64 (9)</i>		<i>denda % (pleguaren arabera), 2020 erreala = 14</i>
	Tamaina handiko elementuen bilketa eta garraioa	% 29,86	% 5,31	% 8,61	% 3,37		% 52,84	Biztanleria
	Abandonatutako ibilgailuen bilketa	% 29,86	% 5,31	% 8,61	% 3,37		% 52,84	Biztanleria
	Pilen, CDen eta minipuntuaren bilketa	% 43 (33)	% 1 (1)	% 4 (3)		% 52 (40)		Puntu kopurua = 77
	Etxeko landare-olio erabilien bilketa eta beste batzuk	% 23 (6)	% 8 (2)	% 12 (3)	% 12 (3)	% 46 (12)		Oliorako edukiontzi kopurua = 26
	Fibrozentuzko hondakinak kentzea	% 29,86	% 5,31	% 8,61	% 3,37		% 52,84	Biztanleria
	Merkatu, jai eta gainerakoen bilketa	% 29,86	% 5,31	% 8,61	% 3,37		% 52,84	Biztanleria
	B. pneumatikoa-hondakinen lekualdaketak						% 100	Laudio
	Pneumatikoa erreparatzea						% 100	Laudio
	Okondoko garbigunea	% 29,86	% 5,31	% 8,61	% 3,37		% 52,84	Biztanleria
	Laudion edukiontziak atzetik biltzea					% 100		Laudio
	Beste bilketa zerbitzu batzuk							
	Edukiontziak eta postontziak garbitzea	x	x	x	x	x	x	Sorkuntza (pisatzea)
	Edukiontzi-garbigailuarekin garbitzea	% 29,86	% 5,31	% 8,61	% 3,37		% 52,84	Biztanleria
	Laudioko TE kudeatzea	% 29,86	% 5,31	% 8,61	% 3,37		% 52,84	Biztanleria
	Artziniegako lurpekoen bilketa		% 100					Artziniega

AIARAKO KUADRILLA
ARABA



CUADRILLA DE AYALA
ALAVA

	P eta K garraiatzea azken helmugaraino	% 29,86	% 5,31	% 8,61	% 3,37	% 52,84		Biztanleria
	Garbigunea kudeatzea	% 10	% 6,82	% 11,05	% 4,33	% 68		Biztanleria
	Zerbitzu komunak							
	Zerbitzu komunak	% 29,86	% 5,31	% 8,61	% 3,37	% 52,84		Biztanleria
KUADRILLA	SOLDATA	% 29,86	% 5,31	% 8,61	% 3,37	% 52,84		Biztanleria
	MA PROIEKTUAK	% 29,86	% 5,31	% 8,61	% 3,37	% 52,84		Biztanleria
BESTE BATZUK	JUNDIZ TASAK	x	x	x	x	x	x	Pisatzea
DIRU-SARRERAK	ONTZIEN SARRERA	x	x	x	x	x	x	Pisatzea
	PAPERAREN SARRERA	x	x	x	x	x	x	Pisatzea
	GARBIGUNEKO SARRERAK (eta hitzarmenak)	% 10	x	x	x	x	x	Biztanleria

	URTEKO KOSTUA	AMURRIO	ARTZINIEGA	AIARA	OKONDO	LAUDIO (edukiontziak)	LAUDIO (pneumatikoa)
Hiri hondakinen ohiko bilketa	729.161,70	222.229,60	39.751,16	70.357,02	27.633,48	313.086,11	56.104,33
<i>HHSen bilketa</i>	371.396,09	130.360,03 €	23.955,05 €	46.127,39 €	15.598,64 €	155.354,99 €	0,00 €
<i>Ontzien bilketa</i>	72.734,99	28.832,15 €	4.436,83 €	8.044,49 €	3.731,31 €	27.690,21 €	0,00 €
<i>Organikoen bilketa</i>	15.598,57	5.149,09 €	2.461,45 €	1.937,34 €	717,53 €	5.333,15 €	0,00 €
<i>Mantentze-lan orokorrak</i>	30.822,77	10.818,79 €	1.988,07 €	3.828,19 €	1.294,56 €	12.893,16 €	0,00 €
<i>Merkataritzako P eta K biltzea (AA)</i>	51.664,56	9.061,96 €	604,48 €	304,82 €	604,48 €	41.088,82 €	0,00 €
<i>Arrandegien bilketa</i>	17.442,13	6.228,58 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	11.213,54 €	0,00 €
<i>Tamaina handiko elementuen bilketa eta garraioa</i>	41.064,20	12.260,50 €	2.182,48 €	3.536,54 €	1.385,06 €	21.699,62 €	0,00 €
<i>Abandonatutako ibilgailuen bilketa</i>	6.979,22	2.083,78 €	370,93 €	601,07 €	235,40 €	3.688,04 €	0,00 €
<i>Pilen, CDen eta minipunten bilketa</i>	4.438,78	1.878,05 €	56,82 €	227,71 €	0,00 €	2.276,20 €	0,00 €
<i>Etxeko landare-olio erabilien bilketa eta beste batzuk</i>	25.849,97	5.966,17 €	1.987,86 €	2.983,09 €	2.983,09 €	11.929,76 €	0,00 €
<i>Fibrozementuzko hondakinak kentzea</i>	12.221,00	3.648,81 €	649,52 €	1.052,50 €	412,20 €	6.457,96 €	0,00 €
<i>Merkatu, jai eta gainerako bilketa</i>	16.956,00	5.062,54 €	901,18 €	1.460,29 €	571,91 €	8.960,09 €	0,00 €
<i>B. pneumatikoa-hondakinen lekualdaketak</i>	37.700,91	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	37.700,91 €
<i>Pneumatikoa erreparatzea</i>	18.403,42	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	18.403,42 €
<i>Okondoko garbigunea</i>	2.944,55	879,15 €	156,50 €	253,59 €	99,32 €	1.555,99 €	0,00 €
<i>Laudioko edukiontziak atzetik biltzea</i>	2.944,55	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	2.944,55 €	0,00 €
Beste bilketa zerbitzu batzuk	304.255,08	72.236,84	23.833,94	28.671,82	11.033,89	168.478,58	0,00
<i>Edukiontziak eta postontziak garbitzea</i>	37.786,50	11.883,85 €	2.229,40 €	4.160,29 €	1.432,11 €	18.080,84 €	0,00 €
<i>Edukiontzi-garbigailuarekin garbitzea</i>	11.877,05	3.546,12 €	631,24 €	1.022,88 €	400,60 €	6.276,21 €	0,00 €
<i>Laudioko TE kudeatzea</i>	154.633,01	46.168,62 €	8.218,43 €	13.317,35 €	5.215,63 €	81.712,98 €	0,00 €

AIARAKO KUADRILLA
ARABA



CUADRILLA DE AYALA
ALAVA

Artziniegako lurpekoen bilketa	6.477,24	0,00 €	6.477,24 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €
P eta K garraiatzea azken helmugaraino (Autotrinkogailua)	6.497,06	1.939,82 €	345,31 €	559,54 €	219,14 €	3.433,25 €	0,00 €
Garbigunea kudeatzea	86.984,21j	8.698,42 €	5.932,32 €	9.611,76 €	3.766,42 €	58.975,30 €	0,00 €
Zerbitzu komunak	124.765,13	37.251,00	6.631,01	10.745,06	4.208,21	65.929,85	0,00
Zerbitzu komunak	124.765,13	37.251,00 €	6.631,01 €	10.745,06 €	4.208,21 €	65.929,85 €	0,00 €
LURPEKOAK	12.000,00	4.000,00	8.000,00				
SOLDATA	50.661,71	15.933,11	2.989,04	5.577,85	1.920,08	24.241,63	0,00
MA PROIEKTUAK	25.566,67	7.633,41	1.358,82	2.201,86	862,34	13.510,24	0,00
JUNDIZKO GAINERAKO TASAK	0,0884	239.908,95	44.113,13	84.874,87	28.712,08	285.867,95	70.398,22
JUNDIZ TASA ORGANIKOA	0,0550	2.885,03	1.378,97	1.085,83	402,10	2.988,30	0,00
GASTUA, GUZTIRA	2.009.025,72 €	602.077,93 €	128.056,08 €	203.514,33 €	74.772,18 €	1.000.605,21 €	

	URTEKO KOSTUA	AMURRIO	ARTZINIEGA	AIARA	OKONDO	LAUDIO (edukiontzia)	LAUDIO (pneumatikoa)
GASTUA GUZTIRA	2.009.025,72 €	602.077,93 €	128.056,08 €	203.514,33 €	74.772,18 €	1.000.605,21 €	
TEFF DIRU-SARRERA	707.701,45	211.385,88	40.559,46	63.950,55	24.171,32	367.634,24	
ONTZIEN DIRU-SARRERA	0,23	37.184,76	5.724,90	10.373,50	4.815,91	35.718,85	
GARBIGUNEKO DIRU-SARRERAK (PENDIENTE)							
DIRU-SARRERAK, GUZTIRA	850.790,89 €	248.570,64 €	46.284,36 €	74.324,05 €	28.987,23 €	452.624,61 €	
GUZTIRA URTEAN	1.158.234,83 €	353.507,29 €	81.771,71 €	129.190,27 €	45.784,95 €	547.980,60 €	
% udalen artean	% 100,00	% 30,52	% 7,06	% 11,15	% 3,95	% 47,31	
2018 LIKIDAZIOA	981.390,53 €	310.733,94 €	67.824,46 €	119.529,28 €	43.307,37 €	439.995,48 €	
% udalen artean	100,00%	% 31,66	% 6,91	% 12,18	% 4,41	% 44,83	
ALDEA % udalerrien artean 2018/2019		% 1,14	% -0,15	% 1,03	% 0,46	-% 2,48	

**AIARAKO KUADRILLA
ARABA**



**CUADRILLA DE AYALA
ALAVA**

ALDEA 2018/2019	176.844,30 €	42.773,35 €	13.947,25 €	9.660,99 €	2.477,58 €	107.985,12 €
------------------------	---------------------	--------------------	--------------------	-------------------	-------------------	---------------------



Azalpena eman bitartean dauden zalantzak argitu ditu.

Teknikariak jakinarazi du gutxi gorabehera urtarrilaren 31 arloko informazio batzorde bat deituko dela agendak uztartzeko.

Azalpena amaitutakoan, jakinaren gainean geratu dira guztiak.

7.- LANBIDE ESKOLA BHIren ESKAERA

Deialdiarekin batera LANKIDE ESKOLA BHIren izenean Urkixo jaunak aurkeztutako eskaera dago.

Aztertu da hori ez dela Kuadrillaren dirulaguntza izenduna eta oraindik ez dela osatu 2020rako eskualdeko dirulaguntzen deialdia.

Eztabaida laburraren ondoren, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.– Jakinaraztea laguntza horien eskatzaileari 2020rako eskualdeko dirulaguntzen deialdia ez dela egin eta hori deitzean proiektua aurkezteko.

Bilkurako eguneko gai-zerrenda amaitutakoan, presidentetzak galdetu du premiazkoa izateagatik eguneko gai-zerrendan sartzeko beste gairik dagoen. Aurrekoari eutsiz, honako gai hauek sartzea proposatu da:

- 1.- SOCIEDAD CICLISTA AYALA-AIALA TXIRRINDULARI ELKARTEAK LAGUNTZAK ESKATZEA
- 2.- AIARATUR MARKA BERRITZEA
- 3.- DIPUTATU NAGUSIORDEAK IGORRITAKO IDATZI BATEN BERRI EMATEA
- 4.- TURISMOA SUSTATZEKO BIDEOAREN ZIRRIBORROA AURKEZTEA

Sartuko diren puntuak azaldu ondoren, bozkatu egin da eta aho batez **ERABAKI DA** premiazkoak direla eta jarraian zuten ordena berdinarekin bilkuran sartzea.

8.- SOCIEDAD CICLISTA AYALA-AIALA TXIRRINDULARI ELKARTEAK LAGUNTZAK ESKATZEA

Aurreko urteetan bezala, Aiala Txirrindulari Elkarteak 2020ko Aiarako Birarako laguntza eskatu du.



Aztertu da hori ez dela Kuadrillaren dirulaguntza izenduna eta oraindik ez dela osatu 2020rako eskualdeko dirulaguntzen deialdia.

Eztabaida laburraren ondoren, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.– Jakinaraztea laguntza horien eskatzaileari 2020rako eskualdeko dirulaguntzen deialdia ez dela egin eta hori deitzean proiektua aurkezteko.

9.- AIARATUR MARKA BERRITZEA

Ghiro teknikari jaunak jakinarazi du gutxi barru AIARATUR marka berritzea onartuko den edo ez erabaki beharko dela; marka horren jabea AIARATUR Elkarteak da eta Kuadrillan sartuta dago. Hala ere, elkarteak orain desagertzeko prozesuan dago. Horrez gain, jakinarazi du ez badela orain berritzen iraungi egingo dela eta eskualdeko turismoaren marka honen inguruko eskubide guztiak galduko dituela; ondorioz, edozeinek erosi ahal izango du.

Era berean, jakinarazi du AIARATUR Elkarteak eskubide horiek Kuadrillari laga beharko dizkiola.

Eztabaida amaitutakoan, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- AIARATUR turismo marka eskuratzeko beharrezko urratsak ematea.

BIGARRENA.- Onartzea eskuratzearen gastua eta IBERPATENT Patentes y Marcas enpresari esleitzea AIARATUR marka berritzea; aurreikusitako prezioa guztira 700 € da.

10.- DIPUTATU NAGUSIORDEAK IGORRITAKO IDATZI BATEN BERRI EMATEA

Presidente andreak Pilar García de Salazar diputatu nagusiorde andreaken mezu elektronikoa jaso duela adierazi du. Bertan jakinarazten du gutxi barru Osakidetza arduradunekin batera bat izango duela Arabako landa-eremuko egoera baloratzeko. Horri dagokionez, eskatu du edozein laguntza-arazo jakinarazteko (azpiegiturak, kontsultategiak, etab.), baita egon daitezkeen hobekuntzak ere, profesionalen kopuruari dagokionez, ordezkatze-sistemari dagokionez edo espezialitate mediko edo erizaintzakoei dagokionez (adibidez, pediatrak edo etxez etxeko osasun-laguntza, etxean ospitaleratzea, etab.), osasun-arduradunekin egoera aztertu ahal izateko.

Kuadrillak zerbitzu horretan ez du inongo eskumenik eta udalek udalerriri bakoitzean beren arazoak hobe ezagutzen dituzte, beraz, **Presidente andreak** uste du mezua udal-arduradunei helaraztea hobe dela, gero horiek García de Salazar andreaki beren udalerrietako



proposamenak igortzeko gai honen inguruan. Modu horretan, Osakidetzako arduradunekin kudeaketa hobea egin ahal izango du.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau onartzea:

LEHENENGOA.– Kuadrillak Diputatu Nagusiordearen mezu elektronikoa bidaltzea alkatetzei, udal bakoitzak bere beharrak zuzenean jakinarazteko.

11.- TURISMOA SUSTATZEKO BIDEOAREN ZIRRIBORROA AURKEZTEA

Ghiro jaunak eskualdeko turismoa sustatzeko bideoaren zirriborroa aurkeztu du eta jakinarazi du horretan lan egiten jarraitu behar dela behin betiko bideoa lortu arte.

Ikusi ondoren, jakinaren gainean geratu dira guztiak.

16.- ESKAERAK ETA GALDERAK

Ez denez halakorik egin, puntua amaitutzat jo da.

Eta beste gairik ez dagoenez, bilkura amaitutzat eman da goian adierazitako eguneko **14:07ak** direnean. Era berean, presidenteak eta neuk, idazkariak, izenpetu dugu akta hau, eta neuk idatzitako guztia egiaztatzen dut.

KUADRILLAKO PRESIDENTEA. ENCINA CASTRESANA ASTARLOA.

IDAZKARIA. VIRGINIA CARCELÉN GARCÍA.

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA
DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE**